elkarkidetza®
pentsioak

# 2013ko KUDEAKETA TXOSTENA

# INFORME DE GESTIÓN 2013


**Araba**

Ramón y Cajal, 7 y 9
1007 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 14 11 41
Fax: 945 13 63 45

**Bizkaia**

Gardoqui, 2 bajo
48008 Bilbao-Bilbo

Tel.: 94 415 55 78
Fax 94 479 10 22

**Gipuzkoa**

Mendeurren Plaza 6 - bajo
20006 Donostia-San Sebastian

Tel.: 943 43 02 56
Fax: 943 43 02 57

# AURKEZPEN GUTUNA

## CARTA DE PRESENTACIÓN

Makroekonomiaren eremuan, 2013. urtearen bereizgarria optimismo ofiziala izan da, banku zentralen moneta-hedaldirako politiketan oinarrituta. Alabaina, Europako ekonomiak hazkunde ahula izan du.

Ahaleginak egin arren, finantzaketa-kostu handiek eta langabezia-maila altuek herrialde periferikoei aurrera egitea eragozten diete, eta lehia-giro gero eta handiago izateak ere ongizate-estatua kaltetuko du.

Testuinguru hurbilago batean, Estatuak Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren gainean 2011. urte amaieratik hartutako erabaki harrigarriak zuzendu ziren 2013an zehar, batez ere Aurrekontu Orokorren Legean jasotakoak, legeak irmoki debekatu baitzuen instituzioek Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei eta bereziki Elkarkidetzari ekarpenak egitea.

2012. urtean partzialki zuzendu zen, erretiro-kontingentzietako ez ziren ekarpenak baimendu zirenean: heriotza eta ezintasuna. 2013an, hilabete luzez lan egin ondoren, behin betiko zuzendu zen, erretiro-kontingentzia estaltzeko ekarpenak baimendu baitziren. Ekitaldi amaieran eta 2014ko ekitaldira igarotzeko tarte horretan, legez gaitu zituzten aurrezpen kapitalizaturako ekarpenak. Espero dugu pixkanaka berreskuratutako ekarpen horiek azkar egonkortuko direla, eta normaltasunera itzuliko garela.

Zalantzarik gabe, Elkarkidetzak eragin erabakigarria izan du denbora honetan instituzioen ekarpenak pixkanaka berreskuratzeko eta normalizatzeko ahaleginean. Aldundietako eta udalerrietako talde-negozioaren bidez kalitatezko proiektu serioa eta aurreratua geneukan, egonkortua eta herrialderik aurreratuenetan martxan jarritakoen parekoa, eta, proiektu horretan, instituzioen ekarpenak funtsezko elementua ziren.

Azken urteotan zehar, Gizarte Segurantzan erreforma bortitza eta nabarmena egin da. Gainera, ez zaigu pentsio-sistemaren bigarren ardatz osagarria sustatuko denaren itxaropen argirik eskaini, eta, horri dagokiola, neurri izugarri etsigarriak baino ez ditugu ikusi.

Horrela, Europako Batasunaren Liburu Zurian ezarritako eskakizunak larriki hautsi dira, pentsio nahikoak, seguruak eta jasangarriak eskaintzeari dagokionean. Horrek bide latza jarri digu aurrean, baina eraginkortasunez eta duintasunez gainditu dugu. Espero dugu aro berria irekitzean

En el ámbito macroeconómico el año 2013 se ha caracterizado por un optimismo oficial apoyado en las políticas de expansión monetaria de los bancos centrales, pero que se ha concretado en un débil crecimiento de la economía europea.

Los países periféricos a pesar de los esfuerzos continúan lastrados por los altos costes de financiación y un alto nivel de paro en un entorno de competencia creciente, que va a generar un deterioro del estado de bienestar.

En un contexto más cercano, durante 2013 se corrigieron las sorprendentes decisiones adoptadas desde finales de 2011 en el ámbito del Estado sobre la Previsión Social Complementaria, especialmente las contenidas en la Ley de Presupuestos Generales, con una prohibición rígida de las aportaciones institucionales a Entidades de Previsión Social Voluntaria, singularmente a Elkarkidetza.

Se produjo una primera corrección parcial en el año 2012 al posibilitar las aportaciones a contingencias distintas de la jubilación: fallecimiento e incapacidad. El año 2013, tras meses de trabajo, trajo consigo la corrección definitiva al permitirse las aportaciones para la cobertura de la contingencia de jubilación, que sólo al final del ejercicio y ya en el paso a 2014 se transforma en la habilitación legal para volver a reiniciar también las referidas aportaciones a ahorro capitalizado. Confiamos en que la reincorporación paulatina de tales aportaciones se consolide rápidamente y volvamos a una senda de normalidad.

Elkarkidetza ha tenido, sin duda, una participación decidida en el esfuerzo desplegado durante todo este tiempo por lograr la recuperación y normalización progresiva de las aportaciones institucionales, elemento fundamental de lo que había venido siendo un proyecto serio, avanzado y de calidad, surgido de la negociación colectiva en el ámbito del sector público foral y municipal, consolidado, homologable a los puestos en marcha en los países más avanzados.

Han sido años en los que hemos asistido a una agresiva y muy sustancial reforma de la Seguridad Social, sin haberse ofrecido tampoco perspectivas claras de impulso a un segundo pilar complementario del sistema de pensiones, respecto al cual sólo hemos observado medidas sorprendentemente desincentivadoras.

Este grave incumplimiento de los requerimientos establecidos en el Libro Blanco de la Unión Europea sobre pen-

etapa hori behin betiko gaindituko dugula. Ildo horretatik, Elkarkidetzak haren nortasun-zeinuak indartu eta egoera berrira egokitu behar du, egoera sozioekonomikoak eta aurreikusten dugun arau-marko berriak eta lehia-baldintzek jartzen dizkiguten erronkei erantzun argiak eta irmoak emanda.

2013. urtean, Elkarkidetzak berriz ere erakutsi du gaitasuna duela pentsio osagarriak sortzeko, eta baita bazkideentzat horren garrantzitsuak eta estimatuak diren heriotza- eta ezgaitasun-prestazioak emateko ere. Nahiz eta makroekonomiaren eremuan egoera arinki suspertu, gizartea hondoratuta dago, zalantzarik gabe, eta pertsonek eta familiek kalte larriak jasan dituzte; hala eta guztiz ere, lortu egin dugu.

Lan horretan, errentagarritasun bikaina eskaini dugu, eta orokorrean gure ondarea %8,31 hazi da, kudeaketa zorrotza egin dugulako, dibertsifikazioa helburu utziezintzat izan dugulako eta segurtasuna, errentagarritasuna eta likidezia uztartu ditugulako. Berriz ere inflazioari gogor egin diogu aurre eta kaudimena indartu dugu, eta, hala, gure ondarea bederatziehun milioi eurotik gertu dago. Horrela, Elkarkidetza Gizarte Aurreikuspen Osagarrien eremuan erreferente entzutetsu bihurtu duen lan-ildo etengabea sendotu dugu.

Berriz ere, nabarmentzekoa da gure erakundeak hartutako konpromisoa, pentsioen alorreko kultura indartzeko zein aurreikuspen osagarri irmoa eta burutsua azpimarratzeko, asmoa izanik gure bazkide guztien etorkizun pertsonala eta familiarra bermatzea.

Gure proiektuak talde-negoziazioa eduki zuen abiapuntu, eta ordezkari sozialen eta instituzionalen erantzunkidetasunean eta partekatutako kudeaketan oinarritu zen. Euskadirekin konpromiso argia dugu, aurrezpena ikuspegi komunitario batetik bideratu eta gure inguruko gizartearen garapen sozialaren eta ekonomikoaren alde egiten baitugu.

siones suficientes, seguras y sostenibles ha generado una dura travesía del desierto que hemos sorteado con eficacia y dignidad. Etapa que esperamos superar definitivamente con la apertura a un nuevo tiempo en el que Elkarkidetza debe reforzar sus señas de identidad y abrirse a los nuevos tiempos, proporcionando respuestas claras y decididas a los desafíos que se abren tanto por la situación socioeconómica, como por el previsible nuevo marco regulatorio y las condiciones de la competencia.

En el año 2013 Elkarkidetza ha vuelto a demostrar su capacidad para generar pensiones complementarias, así como prestaciones por fallecimiento o incapacidad muy relevantes y estimadas por nuestros socios. Y lo hemos hecho en un contexto de ligerísima recuperación económica en términos macroeconómicos pero de indudable zozobra social, y de graves impactos en personas y familias.

En esta tarea hemos vuelto a proporcionar una excelente rentabilidad y crecimiento global de nuestro patrimonio del 8,31%, fruto de una gestión prudente, con objetivos irrenunciables de diversificación y conjugando principios de seguridad, rentabilidad y liquidez. Volvemos a batir fuertemente la inflación, reforzamos nuestros niveles de solvencia y nuestro patrimonio se acerca ya a los novecientos millones de euros. Se refuerza de esta manera una línea constante que Elkarkidetza ha dibujado como uno de los referentes más prestigiosos en el ámbito de la Previsión Social Complementaria.

Tenemos que volver a reiterar el compromiso de nuestra entidad para reforzar la cultura en materia de pensiones, enfatizar la importancia de una previsión complementaria firme e inteligente en el aseguramiento de un futuro personal y familiar para todos nuestros socios.

Un proyecto que ha surgido de la negociación colectiva, asentado en principios de corresponsabilidad y de gestión compartida entre la representación social e institucional. Claramente comprometida con Euskadi por cuanto que canalizamos el ahorro también en una perspectiva comunitaria, apostando por el desarrollo social y económico de la sociedad de la que formamos parte.

**Karmelo Sainz de la Maza Arrola**

**PRESIDENTEA**
PRESIDENTE

**Amaia Aldasoro Iturbe**

**PRESIDENTEORDEA**
VICEPRESIDENTA

# EGOERAREN ANALISIA

## ANÁLISIS DE COYUNTURA

2013an, Europako Batasunak etorkizunarekiko konfiantza handiagoa izan du, Euroak biziraun beharra berronartu delako eta bazkide-herrialderen bat irteteko aukera ia guztiz baztertu delako. Giro horrek mesede egin dio gure erakundeari. Elementu giltzarriak izan dira Europako Banku Zentralak egindako esku-hartzea, moneta-politikak ezartzean autoritate gehiago edukitzea eta Irlandan, Portugalen eta Espainian doikuntza- eta berregituratze-planak modu onargarrian martxan jartzea. Egoera berri horiei esker, urte hasieran hainbat arazo zailtasun handirik gabe gainditu ahal izan ditugu, hala nola Italiako ezegonkortasun politikoa eta Txipreko krisia.

Estatu Batuetan hazkunde ekonomikoa egonkortzeak, Japoniako hedaldi-politikek eta uztailetik aurrera Europako datuak hobetzeko aukerak uxatu egin dute krisian berriz erortzearen beldurra. Alabaina, mahaigaineratu dute komenigarria den ala ez AEBtako Erreserba Federalak Bonuak hilero erosteari berrekin diezaion.

Maiatza amaieran, Erreserba Federalak sisteman sartutako dirua graduali murriztuko zuela adierazi zuen. Ondorioz, merkatuak erabat aztoratu ziren, Burtsak minimotara jaitsi ziren eta Eurostoxx eta Ibex indizeak urte amaierako mailen azpitik geratu ziren. Espainiar bonuen errentagarritasuna % 1 igoko da hamar urteko epean, baina garapen bidean dauden herrialdeak 2013 osorako kaltetuak geratu ziren.

Sortutako ziurgabetasuna ikusita, Erreserba Federalak hitzeman zuen pizgarriak pixkanaka kendu eta tasak denbora luzez baxu mantenduko zituela. Helburua da hazkundea arriskuan ez jartzea eta errenta aldagarriko eta finkoko merkatuak suspertzen laguntzea, batik bat herrialde periferikoen kasuan, bonu estatubatuarren eta alemanen kaltetan, oso neurriko errentagarritasuna baitute.

En 2013 nos hemos beneficiado de un clima de mayor confianza en el futuro de la Unión Europea al recuperarse el consenso acerca de la pervivencia del Euro y queda prácticamente desechada la salida de alguno de los actuales países socios. La actuación del Banco Central Europeo, su creciente autoridad en la implementación de la política monetaria y la aceptable puesta en práctica de los distintos planes de ajuste y restructuración en Irlanda, Portugal y España, han sido claves. Estas nuevas circunstancias han permitido a principios de año sortear problemas como la inestabilidad política de Italia, o la crisis de Chipre sin mayores dificultades.

El afianzamiento del crecimiento económico en Estados Unidos, las políticas expansivas de Japón y los mejores datos que a partir de Julio se barajan para Europa, alejan el temor a una nueva recaída en la crisis, pero sitúan en primer plano la conveniencia o no de restituir la política de compra de Bonos por parte de la Reserva Federal de USA.

A finales de mayo cuando la Fed hace referencia a una posible reducción gradual de inyección de dinero en el sistema, el nerviosismo sacude los mercados, las Bolsas caen a mínimos, el Eurostoxx y el Ibex se sitúan por debajo de los niveles de fin de año. La rentabilidad del Bono español a diez años repunta el 1% y los activos de los Países Emergentes quedan tocados para el resto de 2013.

A partir de las incertidumbres creadas, la Fed se compromete a retirar los estímulos de forma paulatina y a mantener los tipos bajos por un amplio periodo de tiempo para evitar poner en riesgo el crecimiento, propiciando la recuperación de los mercados de renta variable y de renta fija, en especial los periféricos, en perjuicio de los bonos USA y alemán con rentabilidades muy ajustadas.

**INFLAZIOA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA**
**INFLACIÓN Y CRECIMIENTO ECONÓMICO**

| GUNEA / HERRIALDEA<br>ZONA / PAIS | Inflazioa<br>Inflación | | | Hazkunde ekonomikoa (BPG)<br>Crecimiento económico (PIB) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2012 | 2013* | 2014* | 2012 | 2013* | 2014* |
| Zona euro | 2,2% | 0,8% | 1,1% | -0,6% | -0,4% | 1,0% |
| USA | 1,7% | 1,5% | 1,6% | 2,8% | 1,9% | 2,8% |
| Japón | -0,1% | 0,3% | 2,4% | 1,5% | 1,7% | 1,6% |
| China | 2,5% | 2,5% | 3,1% | 7,7% | 7,7% | 7,4% |
| España | 2,9% | 0,3% | 0,7% | -1,6% | -1,3% | 0,6% |

Iturria: REUTERS
Fuente: REUTERS

# INBERTSIO ZORROAREN EGITURA

## ESTRUCTURA DE LA CARTERA DE INVERSIÓN

Elkarkidetzan, urte osorako aurreikusitako errentagarritasuna eta arriskuak ikusita, gure errentagarritasun-helburuei hobekien egokitzen zitzaien aktibo-banaketa gauzatu genuen. Oso kontuan izan genuen mundu osoan bizi dugun moneta-hedaldi handia eta horrek etorkizunean inflazioa sortuko duela, eta aintzat hartu genuen ere herrialderik seguruenen epe luzerako bonuek errendimendu txikia dutela, Alemaniakoak eta AEBtakoak kasu.

En Elkarkidetza a partir de nuestras previsiones de rentabilidad y riesgo para el año, pusimos en práctica la distribución de activos que mejor se ajustaba a nuestros objetivos de rentabilidad. Tuvimos muy presente la gran expansión monetaria que se vive en el mundo y el riesgo inflacionario futuro que esto implica, también tomamos en consideración el escaso rendimiento de los Bonos a largo de los países más seguros como Alemania o USA.

**ONDAREA**
**PATRIMONIO**




**Ondarearen banaketa 2013/12/31n**
**Distribución del patrimonio a 31/12/2013**

Arriskua areagotzea erabaki genuen, hobekuntza-tarte erkagarria duten aktibo likidoen errentagarritasuna hobetzeko, eta, horri esker, errenta aldagarrirako esposizioa hobetu zen, ondarearen %30 inguru lortu genuelarik.

Decidimos incrementar riesgo para mejorar la rentabilidad en activos líquidos y con márgenes de mejora contrastables, lo que se tradujo en una mayor exposición a renta variable con un objetivo cercano al 30% del patrimonio.

**ERRENTA ALDAKORRA**
**RENTA VARIABLE**



Errenta finkoan tasak etengabean jaisten ari dira, eta, horrenbestez, dibertsifikazio handiagoa izatearen aldeko apustua egin genuen: Bonu Bihurgarriak, High Yield funtsak, eta maila apalagoan, epe laburrerako eta ertainerako Bonu periferikoak. Hala, etorkizuneko inflazio-igoera horren aurrean inolako babesik ematen ez duten bonuak alde batera utzi genituen.

En renta fija donde los tipos vienen declinando de forma ininterrumpida, apostamos por una mayor diversificación en Bonos Convertibles, High Yield y de forma moderada en Bonos periféricos en plazos cortos y medios en perjuicio de Bonos con rentabilidades que no proporcionan ninguna protección ante un futuro rebrote inflacionario.

**ERRENTA FINKOA**
RENTA FIJA




Asset Allocation funts likidoei atea ireki genien, denboran zehar egiaztatu baita emaitza positiboak dituztela. Politika horri esker, errentagarritasun positiboa izan dugu hilabete guztietan, ekainean izan ezik. Izan ere, hilabete horretan, Erreserba Federalak politikaz aldatzeko beldurrak guri ere eragin zigun. Urteko errentagarritasun garbia **%8,31** izan zen, ekitaldirako aurreikusitako %6a, %2,31 gaindituz, eta hegakortasuna, berriz, %3,2.

Errenta aldagarriak %60 inguruko ekarpena egin zuen urteko errentagarritasunean, eta errenta finkoak, aldiz, %40koa.

Abrimos la puerta a fondos de Asset Allocation, líquidos, con un historial de resultados positivos contrastados en el tiempo. Esta política nos ha permitido obtener rentabilidades positivas todos los meses con la excepción de Junio donde también nos vimos afectados por los temores de cambio en la política de la Fed. La rentabilidad neta del año se sitúa en el **8,31%**, superando la rentabilidad del 6% prevista para el ejercicio en un 2,31%, con una volatilidad anual del 3,2%.

La aportación de la renta variable a la rentabilidad anual se acerca al 60% y la de la renta fija al 40%.

**ONDAREA**
PATRIMONIO




**Mila eurotan adierazitako kopuruak**
Cantidades expresadas en miles de euros

Gure ondarea bederatziehun milioi eurotara gerturatzen da ekitaldiko errentagarritasun bikainaren bultzadarekin.

Nuestro patrimonio se acerca a los novecientos millones de euros impulsado por la excelente rentabilidad del ejercicio.

## ERRENTAGARRITASUN KONPARATUA
## RENTABILIDAD COMPARADA

Elkarkidetzaren errentagarritasuna INVERCOren datuekin erkatuz gero, magnitude guztiak gainditzen dira epe ertainera eta luzera. Errentagarritasun egonkorra dauka oszilazio handirik gabe, ondare-kudeaketa arduratsuari esker. Era berean, KPIa argi eta garbi gainditzen da aztertutako epealdi guztietan.

Si se compara la rentabilidad de Elkarkidetza con los datos de INVERCO se superan todas las magnitudes en el medio y largo plazo. Presenta una rentabilidad estable sin grandes oscilaciones fruto de una gestión patrimonial responsable. Asimismo, se bate al IPC claramente en cualquier periodo considerado.

| URTEAK<br>AÑOS | 20 | 15 | 10 | 5 | 3 | 1 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sistema indibiduala<br>Sistema individual | 3,71 | 1,65 | 2,29 | 3,76 | 4,07 | 8,72 |
| Bermatuak<br>Garantizados | | | 2,24 | 2,45 | 4,85 | 9,41 |
| Enplegu-sistema<br>Sistema de empleo | 4,93 | 2,75 | 3,54 | 5,57 | 5,17 | 7,70 |
| Lotutako sistema<br>Sistema asociado | 5,30 | 3,34 | 4,15 | 5,34 | 5,08 | 9,51 |
| **Planak, guztira<br>Total planes** | **4,24** | **2,05** | **2,83** | **4,54** | **4,52** | **8,36** |
| Elkarkidetza | 7,00 | 5,03 | 5,14 | 5,74 | 4,84 | 8,31 |
| KPI<br>IPC | 2,81 | 2,71 | 2,45 | 1,87 | 1,86 | 0,30 |

**Ehunekotan adierazitako kopuruak**
Cifras expresadas en porcentaje

INVERCO

ELKARKIDETZA

INVERCO Inbertsio Kolektiboen eta Pentsio Funtsen Instituzioen Elkartea da. Ez da antzeko estatistikarik eskatzen BGAE-ei buruz.

Iraganeko errentabilitateek ez dituzte bermatzen ezta zehazten ere etorkizuneko errentabilitateak.

INVERCO es la Asociación de Instituciones de Inversión Colectiva y Fondos de Pensiones. No existe una estadística similar respecto a las EPSV.

Rentabilidades pasadas no garantizan ni determinan rentabilidades futuras.

## ADMINISTRAZIO GASTUAK, BALIO HIGIKORRAK EROSTEAGATIKO BITARTEKARITZA GASTUEN EHUNEKOA ETA BALIO HIGIKORREN KARTERAREN ERROTAZIO RATIOA
## GASTOS DE ADMINISTRACIÓN, PORCENTAJE DE GASTOS DE INTERMEDIACIÓN POR COMPRA DE VALORES MOBILIARIOS Y RATIO DE ROTACIÓN DE LA CARTERA DE VALORES MOBILIARIOS

| | 2013 | 2012 |
|---|---|---|
| Administrazio gastuak<br>Gastos de administración | 0,42 | 0,43 |
| Bitartekaritza gastuak<br>Gastos de intermediación | 0,03 | 0,03 |
| Errotazio ratioa<br>Ratio de rotación | 77,26 | 63,75 |

**Ehunekotan adierazitako kopuruak**
Cifras expresadas en porcentaje

# BAZKIDE TALDEAREN ANALISIA

## ANÁLISIS DEL COLECTIVO

**ELKARKIDETZAREN BIZTANLE PIRAMIDEA**
**PIRÁMIDE DE POBLACIÓN DE ELKARKIDETZA**




Bizitzaren ibilbide naturalari jarraiki, gure pentsiodunak %6,45 areagotu dira eta aktiboan daudenak %3,17 murriztu.

2014ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak enpleguko BGAEtara ekarpenak egiteko aukera ematen du. Onartu zenetik 93 alta eta 1.043 itzultze izan ditugu 2014ko urtarrilaren 31 bitartean eta, horri esker, 2013. urteko bajak berreskuratu ditugu.

Siguiendo el curso natural de la vida, nuestro colectivo de pensionistas ha incrementado en un 6,45% y el de activos se ha reducido un 3,17%.

A partir de la aprobación de la Ley 22/2013, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2014, que posibilita realizar aportaciones a EPSV de empleo, se han recibido 93 altas y 1.043 reincorporaciones a fecha de 31 de enero de 2014 y con ello se han recuperado las bajas del año 2013.

**EKARPENAK ETA PRESTAZIOAK**
**APORTACIONES Y PRESTACIONES**




Mila eurotan adierazitako kopuruak
Cantidades expresadas en miles de euros

2013an zehar, instituzioek arriskuari dagokion kuota eman zuten, hau da, % 10, eta bazkideen ekarpenekin, ordaindutako prestazioekin parekatu ahal izan genituen. Eboluzio normala izan dute, eta % 8,14 igo dira. Uste dugu aurten ekarpenak haziko direla, eta egoera normalizatua izango dugula berriz ere.

Durante el año 2013 las instituciones aportaron la cuota correspondiente a riesgo, 10%, que junto con las aportaciones de socios y socias permitieron equipararse a las prestaciones pagadas, que han seguido la evolución normal y se incrementaron un 8,14%. Estimamos que este año las aportaciones crecerán y volveremos a una situación normalizada.

## ORDAINDUTAKO PRESTAZIOAK
PRESTACIONES PAGADAS

| | Prestazioen zenbatekoa<br>Importe de las prestaciones | | Pentsiodunak<br>Pensionistas | |
|---|---|---|---|---|
| | Euroak, milaka<br>Miles de euros | % | Zenbakia<br>Número | % |
| Derrigorrezko erretiroa<br>Jubilación forzosa | 9.547 | 41,62% | 1.515 | 31,65% |
| Borondatezko erretiroa<br>Jubilación voluntaria | 6.570 | 28,64% | 1.004 | 20,97% |
| Erabateko ezintasuna<br>Invalidez absoluta | 1.721 | 7,50% | 442 | 9,23% |
| Ezintasun osoa<br>Invalidez total | 2.227 | 9,71% | 611 | 12,76% |
| Alarguntasuna<br>Viudedad | 2.118 | 9,24% | 1.102 | 23,02% |
| Zurztasuna<br>Orfandad | 133 | 0,58% | 85 | 1,78% |
| Heriotza<br>Fallecimiento | 624 | 2,71% | 28 | 0,59% |
| **Prestazioak guztira<br>Total prestaciones** | **22.940** | | **4.787** | |

Mila eurotan adierazitako kopuruak
Cantidades expresadas en miles de euros

Ekitaldi honetan 23 milioi euroko prestazioak ordaindu dira, erreskateak, diru-itzultzeak eta intsuldaketak kenduta, hazkundea %8,14koa izan delarik.

Las prestaciones pagadas, excluyendo rescates, reembolsos y transferencias, en este ejercicio han sido de 23 millones de euros con un incremento del 8,14%.

## BALIAEZINAK ETA HILDAKOAK
INVÁLIDOS Y FALLECIDOS




* Behin betiko datuak urtebeteko atzerapenarekin ixten dira
* Los datos definitivos se cierran con un año de retraso

Funtsezkoa da arrisku-prestazioak mantentzea, urtero gertatzen diren minusbaliatuak eta hildakoak babesteko. Batez beste 102 ezintasun eta 24 heriotza egon ohi dira urteko, 2013an egun arte erregistratutako zenbakietatik gertu.

Resulta fundamental el mantenimiento de las prestaciones de riesgo para proteger a los inválidos y fallecidos que se producen anualmente. De media se producen anualmente 102 invalideces y 24 fallecimientos, que son unas cifras muy aproximadas a las que se han registrado hasta la fecha en el año 2013.

**PRESTAZIOAK**
PRESTACIONES




Dena dela, gehienak erretiro-prestazioak dira. 2013ko prestazioak honela banakatzen dira: 414 erretiro, 120 ezintasun, 83 alarguntasun, 10 zurztasun eta heriotzatik eratorritako 29.

No obstante son las prestaciones de jubilación las mayoritarias. Las prestaciones causadas en el ejercicio 2013 se desglosan: 414 jubilaciones, 120 invalideces, 83 viudedades, 10 orfandades y 29 derivadas de fallecimiento.

**ERRESKATATUTAKO ZENBATEKOA**
IMPORTE RESCATADO




Mila eurotan adierazitako kopuruak
Cantidades expresadas en miles de euros

Erreskatatutako zenbatekoa erreskata daitekeen zenbatekoaren %3,08 da, eta horrek erakundearekiko konfiantza dagoela erakusten du.

El importe rescatado supone un 3,08% de la cantidad que se tiene opción de rescatar y manifiesta una confianza en la Entidad.

# BESTE JARDUERA ILDO BATZUK

## OTRAS LÍNEAS DE ACTUACIÓN

Sektore Publikoko Pentsio Erakundeen Europako Elkartearen bidez (EAPSPI, ingelesezko sigletan), pentsioen arloan izandako azken eboluzioen berri izateko aprobetxatu genuen. Europako Batasuna pentsio-sistema egokiak, jasangarriak eta seguruak edukitzeko ahaleginean tematuta dago. Neurri horien artean, Kaudimena II azpimarratzekoa da. Izan ere, pentsio-funtsen partaideei eta onuradunei babes-maila handia eskaintzen die, erakunde horiei segurtasun eta eraginkortasun handienarekin jarduten ahalbidetzen dien marko zehatza sortzen duelako, erakunde-gobernamendu ona eta informazioa eta gardentasuna ardatz izanik.

Kaudimenaren inguruan, Elkarkidetzak bermeak ezarri ditu egoera berriei aurre egiteko (esaterako, taulak bizi-itxaropen berrietara egokitu behar izatea edo interes teknikoko tasak aldatzea), eta errentagarritasun negatiboko urteak orekatzeko.

2013ko urtean lortutako errentagarritasun onari esker, %21,07ko kaudimen-maila izan dugu. Kaudimen hori konpromisorik gabeko ondareari dagokio, eta gure bazkideen etorkizuneko pentsioak ziurtatuko ditu.

Halaber, edukitako errentagarritasun onak aukera emango digu gure pentsiodunen pentsioaren balioa %2,31 edota %2,76 handitzeko, pentsioa kalkulatzerakoan erabilitako interes teknikoko tasaren arabera (%4 eta %3,5, hurrenez hurren).

Kalitatearen kudeaketari dagokionez, Elkarkidetzak ISO 9001:2008 Kalitate Ziurtagiria mantendu du, eta horrek kudeaketa-estandar batzuk bermatzen laguntzen digu. Era berean, Euskalit-ek kanpo-kontrastea egin ondoren, Bikaintasunarekiko Konpromisoaren Diploma mantendu dugu. Kudeaketa aurreratuarekiko konpromisoak gure misioa sendotzen eta hobetzen ahalbidetzen digu.

A través de la Asociación Europea de Instituciones de Pensiones del Sector Público (EAPSPI) aprovechamos para estar al día de las últimas evoluciones en el campo de las pensiones. La Unión Europea sigue en su empeño de mantener unos sistemas de pensiones adecuados, sostenibles y seguros. Dentro de estas medidas destaca Solvencia II que garantiza un alto grado de protección de los partícipes y de los beneficiarios de los fondos de pensiones con la creación de un marco específico que permite a estas instituciones actuar con la máxima seguridad y eficacia, centradas en aspectos de buen gobierno corporativo e información y transparencia.

En el ámbito de la solvencia, Elkarkidetza establece garantías para hacer frente a situaciones que requieran una adaptación de tablas a las nuevas esperanzas de vida, o cambios de tipos de interés técnico, o bien para compensar años de rentabilidades negativas.

En el año 2013, y gracias a la buena rentabilidad obtenida, contamos con un nivel de solvencia del 21,07%. Esta solvencia se corresponde con el patrimonio libre de todo compromiso y que será la que garantice las pensiones futuras de nuestros socios.

Así mismo, la buena rentabilidad obtenida, permitirá revalorizar las pensiones de nuestros pensionistas en un 2,32% y 2,76%, según las pensiones hayan sido calculadas con un tipo de interés técnico del 4% o del 3,5% respectivamente.

Referente a la gestión de calidad, Elkarkidetza ha mantenido el certificado de Calidad ISO 9001:2008 que nos ayuda a garantizar un estándar de gestión. Igualmente tras someternos a un contraste externo realizado por Euskalit hemos mantenido el Diploma de Compromiso con la Excelencia. El compromiso con la gestión avanzada nos permite afianzarnos y mejorar en nuestra misión.

# URTEKO KONTUAK

## CUENTAS ANUALES

| AKTIBOA | ACTIVO | 2013 |
|---|---|---|
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 14.019 |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza aktiboak | Activos financieros mantenidos para negociar | 290.523 |
| Galeretan eta irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten beste finantza aktibo batzuk | Otros activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias | 294.862 |
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak | Prestamos y partida a cobrar | 30.095 |
| Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak | Inversiones mantenidas hasta el vencimiento | 181.284 |
| Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan | Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias | 22.193 |
| Partaidetzak elkarteko erakundeetan eta kideetan | Participaciones en entidades del grupo y asociadas | 46.410 |
| **Guztira aktiboa** | **Total activo** | **879.386** |

| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA | PASIVO Y PATRIMONIO NETO | 2013 |
|---|---|---|
| **Pasiboa** | **Pasivo** | |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza pasiboak | Pasivos financieros mantenidos para negociar | 350 |
| Debituak eta ordaindu beharreko partidak | Débitos y partidas a pagar | 2.683 |
| Hornidura teknikoak | Provisiones técnicas | 834.944 |
| Hornidura ez teknikoak | Provisiones no técnicas | 1.721 |
| **Pasiboa guztira** | **Total pasivo** | **839.698** |
| **Ondare garbia** | **Patrimonio neto** | |
| Funts propioak | Fondos propios | 29.021 |
| Ekitaldiaren emaitza | Resultado del ejercicio | 10.667 |
| **Ondare garbia guztira** | **Total patrimonio neto** | **39.688** |
| **Pasiboa eta Ondare Garbia Guztira** | **Total pasivo y patrimonio neto** | **879.386** |

| EMAITZEN KONTUA | CUENTA DE RESULTADOS | |
|---|---|---|
| Ekitaldiari inputaturiko kuotak, berraseguruko garbiak | Cuotas imputadas al ejercicio, netas de reaseguro | 22.292 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak | Ingresos del inmovilizado material y de las inversiones | 72.328 |
| Beste sarrera tekniko batzuk | Otros ingresos técnicos | 259 |
| Ekitaldiko prestazioak, berraseguruko garbiak | Prestaciones del ejercicio, neta de reaseguro | -25.808 |
| Berraseguruko beste hornidura tekniko garbien aldaketa | Variación de otras provisiones técnicas netas de reaseguro | 4.154 |
| Ustiapen gastu garbiak | Gastos de explotación netos | -2.523 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak | Gastos del inmovilizado material y de las inversiones | -3.288 |
| **Ustiapen emaitzak** | **Resultados de explotación** | **67.414** |
| Zuzkidura aktuarialerako ekitaldiko hornidura | Dotación ejercicio provisión actuarial | -5.890 |
| Definituriko ekarpen zuzkidurako ekitaldiko hornidura | Dotación ejercicio provisión aportación definida | -50.857 |
| **Ekitaldiaren emaitza / %8,31eko errentagarritasuna** | **Resultado del ejercicio / Rentabilidad 8,31%** | **10.667** |

| ESTALDURA TASA, EKITALDIKO SALDO-BANAKETAREN ONDOREN | TASA DE COBERTURA DESPUÉS DE LA DISTRIBUCIÓN DEL RESULTADO DEL EJERCICIO | 2014 |
|---|---|---|
| Mutuako funtsa | Fondo mutual | 9.015 |
| Erreserbak eta beste hornidura tekniko batzuk | Reservas y otras provisiones técnicas | 27.670 |
| | | **36.685** |
| Pasiboen hornidura teknikoak | Provisiones técnicas de pasivos | 174.081 |
| Estaldura | Cobertura | 21,07% |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa | Exceso sobre el mínimo legal exigido | 17,07% |

**Mila eurotan adierazitako kopuruak**
Cantidades expresadas en miles de euros

# KONTU-IKUSKARITZAKO TXOSTENA

## INFORME DE AUDITORÍA

pwc

### INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES

A la Asamblea General de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria:

Hemos auditado las cuentas anuales de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria que comprenden el balance al 31 de diciembre de 2013, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha. La Junta de Gobierno es responsable de la formulación de las cuentas anuales de la Entidad, de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la Entidad (que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, que requiere el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de si su presentación, los principios y criterios contables utilizados y las estimaciones realizadas, están de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación.

En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2013 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria al 31 de diciembre de 2013, así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

El informe de gestión adjunto del ejercicio 2013 contiene las explicaciones que la Junta de Gobierno considera oportunas sobre la situación de la Entidad, la evolución de sus negocios y sobre otros asuntos y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene el citado informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2013. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación del informe de gestión con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Entidad.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.

José Antonio Simón
Socio - Auditor de Cuentas

10 de marzo de 2014

*PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L., C/ Eduardo Dato, 12, 01005 Vitoria, España*
*Tel.: +34 945 151 050 / +34 902 021 111, Fax: +34 945 130 198, www.pwc.es*

R. M. Madrid, hoja 87.250-1, folio 75, tomo 9.267, libro 8.054, sección 3ª
Inscrita en el R.O.A.C. con el número S0242 - CIF: B-79 031290

# 2014ko KUDEAKETA PLANA

# PLAN DE GESTIÓN 2014

## INBERTSIO POLITIKA

Adituen ustez, 2014. urtean hazkunde ekonomikoa egonkortuko da. Aurreikuspenen arabera, Estatu Batuetako BPGk gorakada nabarmena izango du, Japonian hobekuntza jasangarria izango dute eta Europako Batasunak ere joera horrekin bat egingo du. Merkatuak Banku zentralez fidatzen dira aldagai makroekonomikoetan egondako hobekuntzak mantentzeko eta sendotzeko, interes-tasa eta inflazio baxuak eta hazkunde ekonomiko handiagoa, hain zuzen ere. Aitzitik, azpimarratu behar da inoiz ez bezalako moneta-hedaldia iragartzen dela, eta horrek ekonomia suspertu eta gaitz handiagoak aldenduko dituela, atzeraldi berri bat izateko aukera, kasu.

2014an, inbertsio-aktiboen arrisku-errentagarritasuna zorrozki analizatu behar da, dibertsifikazio-politika irmoa abiarazteko abiapuntu gisa. Lehen aurreratu dugun bezala, Banku Zentralek izen ona lortu dute, oraindik pairatzen dugun krisia okerragotzea ekidin dutelako, merkatuak likideziaz beteta. Hurrengo urteetan, likidezia hori guztia neutralizatu beharko dugu. Zentzu horretan, errenta aldagarriak badu abantaila bat: hazkundea egonkortzen bada, irabaziak izango ditu eragiletzat.

Aktiboak eta herrialdeak dibertsifikatu behar direla jakintzat hartuta, errenta aldagarriarekiko konfiantza mantentzen dugu, hori baita errentagarritasun osoa biziberri dezakeen osagai bakarra. Errenta finkoari datxekiola, gure ustez ezinbestekoa da norabidea tasa finkoetatik tasa aldagarrietara aldatzea eta Bonu bihurgarrietan eta High Yield funtsetan arrazoizko ehunekoak mantentzea. Kalitatezko higiezinetan eta Private Equity jardueraren gaineko inbertsioak erakargarriago bilakatu dira, eta aktibo-banaketa malgua eta esperientzia egiaztatua dituzten inbertsio-funtsetan partaidetzak erosten jarraituko dugu.

## BESTE JARDUERA ILDO BATZUK

2014an, gure xedea da 2011. urteko atxikipen-mailak berreskuratzea, eta, ildo horretatik, bi erronka ditugu: batetik, instituzioen ekarpenak etetean ekarpenak egiteari utzi dioten pertsonak berriz ordaintzen hastea, eta, bestetik, langile berriak bereganatzeko kanpaina burutzea.

Bazkideenganako komunikazioan aurrera egiteko helburuari eusten diogu. Lehen hobekuntza internetera mugikorretatik modu azkarrean eta errazean sartzeko aukera

## POLÍTICA DE INVERSIONES

2014 se presenta a juicio de los expertos como un año de consolidación del crecimiento económico. Las previsiones avanzan un repunte sustancial del PIB en Estados unidos, una mejora sostenida en Japón y la incorporación de la Unión Europea a esta tendencia. Los mercados siguen confiando en la capacidad de los Bancos centrales para sostener y reforzar las mejoras de las variables macroeconómicas: tipos de interés e inflación bajos y crecimiento económico al alza, a cambio hay que subrayar una expansión monetaria sin precedentes que sirva de estimulo a la economía y aleje males mayores como una recaída en la recesión.

En 2014 se impone un análisis serio de la rentabilidad riesgo de los activos de inversión, como punto de partida de una decidida política de diversificación. Como ya hemos adelantado, los Bancos Centrales se han labrado un prestigio en su tarea de evitar un recrudecimiento de la crisis que todavía padecemos, inundando los mercados con una liquidez que habrá que neutralizar en los próximos años. En este punto la ventaja de la renta variable es que cuenta, si el crecimiento se consolida, con el motor de los beneficios.

Dando por supuesto la necesidad de diversificar por activos y países, mantenemos nuestra confianza en la renta variable como único componente que puede primar la rentabilidad total. En renta fija consideramos imprescindible iniciar un cambio de sesgo desde tipos fijos a tipos variables y mantener porcentajes asumibles en Bonos convertibles y High Yield. Mejora el atractivo de la inversión en inmuebles de calidad y en Private Equity, continuaremos con la compra de participaciones en fondos de inversión con distribución de activos flexible y con experiencia contrastada.

## OTRAS LÍNEAS DE ACTUACIÓN

En el año 2014 queremos recuperar los niveles de adhesión del año 2011. Tenemos dos frentes, el primero aquellas personas que dejaron de aportar - debido a la suspensión de aportaciones institucionales - reanuden sus aportaciones y el segundo realizar una campaña de captación de los nuevos trabajadores.

Mantenemos el objetivo de progresar en la comunicación con los socios. La primera mejora es acceder a Internet también a través de los dispositivos móviles de una forma fácil y rápida. Aprovechando este cambio sustancial, revi-

da. Aldaketa nabarmen hori aprobetxatuta, webgunearen edukia eta itxura berrikusiko ditugu, pentsioen gaineko informazio argiagoa eta gardenagoa emateko, modu modernoan eta atseginean. Bigarren urratsa dokumentazioa bidaltzeko aukera ematea da, egun ohiko postaz bidaltzen baita, edo emailez, bazkideek espresuki hala eskatuta.

saremos el contenido e imagen de la Web para informar y formar en el tema de las pensiones de una forma más clara y transparente de una forma moderna y amigable. El segundo paso es posibilitar el envío de la documentación, que actualmente se envía por correo ordinario, vía email por petición expresa de nuestros socios y socias.

Elkarkidetzak Sektore Publikoko Pentsio Erakundeen Europako Elkartean (EAPSPI) parte hartzen jarraituko du, Kontseilu Betearazlearen bidez, Alemaniako, Austriako, Esloveniako, Frantziako, Herbeheretako eta Suediako erakundeen ordezkariekin batera.

Elkarkidetza mantendrá su participación en la Asociación Europea de Instituciones de Previsión Social del Sector Público (EAPSPI), a través del Consejo Ejecutivo, junto con representantes de instituciones de Alemania, Austria, Eslovenia, Francia, Países Bajos y Suecia.

2014an jorratuko diren eremuen artean, jarraipen berezia egingo zaio Europako Batzordeak IORP erakundeei (Institutions for Occupational Retirement Provision-Laneko Erretiro Pentsio Osagarrien Erakundeak) kaudimenaren gainean ezarri nahi dien zuzentarauari. Aseguruen sektoreko Kaudimena II Zuzentarauaren baliokidea da, bete beharreko informazioa, gobernamendu ona eta finantza-magnitudeak ezartzen dituena.

Entre las áreas a tratar en 2014, se hará especial seguimiento de la Directiva que la Comisión Europea quiere imponer a las IORP (Institutions for Occupational Retirement Provision-Instituciones para las Pensiones de Jubilación Complementarias de Empleo) sobre solvencia, homóloga de la Directiva Solvencia II para el sector asegurador, en la que se recogen temas de información, buen gobierno y magnitudes financieras de obligado cumplimiento.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei aplika ezin zaien arren, erakudean aplika litekeen aztertu nahi dugu, eta arriskuen eta kudeaketa-gardentasunaren gaineko analisian lehen urratsak ematen hasi.

Aunque no es de aplicación a las Entidades de Previsión Social Voluntarias, nuestra voluntad es estudiar su posible aplicación en la Entidad y comenzar a dar los primeros pasos en el análisis de los riesgos y transparencia en la gestión.

**2014ko ADMINISTRAZIO GASTUAK %0,36**

**GASTOS DE ADMINISTRACIÓN 2014 0,36%**

2014ko urterako administrazio-gastuak % 14 baino gehiago murriztu dira 2013ko urtearen aldean.

Los gastos de administración para el año 2014 se han rebajado más de un 14% respecto al año 2013.

**2014ko EKARPENAK**

**APORTACIONES 2014**

Ekarpenak ez dira areagotu, eta zenbateko berdinak mantentzen dira.

Las aportaciones no se incrementan manteniéndose los mismos importes.

| Taldea<br>Grupo | Oinarriak<br>Bases | 6% | 7% |
|---|---|---|---|
| A1 | 48.452,39 | 103,83 | 121,13 |
| A2 | 39.560,15 | 84,77 | 98,90 |
| C1 | 32.454,80 | 69,55 | 81,14 |
| C2 | 27.126,96 | 58,13 | 67,82 |

Urtean 14 kuota ordaintzen dira (12 hileroko eta ekaineko eta abenduko kuota osagarriak). Ekarpenak nominan atxikitzen dira. Zenbateko horietatik, % 90 erretirorako aurrezten da, eta beste % 10, aldiz, arrisku-prestazioetarako (ezintasuna eta heriotza).

Anualmente se abonan 14 cuotas (las 12 mensualidades y las adicionales de junio y diciembre). Éstas se realizan a través de la retención en nómina. De estas cantidades, el 90% se destina al ahorro para la Jubilación y el 10% a las prestaciones de riesgo (Incapacidad y Fallecimiento).

# BATZAR NAGUSIAK HARTUTAKO AKORDIOAK

## ACUERDOS TOMADOS POR LA ASAMBLEA GENERAL

Joaneko martxoaren 26an, Gasteizko Villasuso Jauregian Ohiko Batzar Nagusia egin zen, eta **gehiengo osoz** akordio hauek hartu ziren:

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

1. Onartzea Gobernu Batzarraren kudeaketa, Kudeaketa Txostena, Urteko Kontuak eta 2013ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiaren emaitza eta horniduren aplikazioa.
2. Onartzea Kudeaketa Plana eta uneko ekitaldiaren aurrekontua eta % 0,36ko administrazio-gastuak 2014ko ekitaldirako ondarearen gainean.
3. 2013an zehar karguaz jabetu ziren Gobernu Batzordearen ordezkari berriak berrestea.
4. PricewaterhouseCoopers kontu-ikuskari izendatzea 2014ko ekitaldirako.

**ALDAKETAK ARAUDIAN**

- Elkarkidetzan erretiro-adina 65 urtekoa da, eta Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoak eta parekoak ezarritako erretiro-adinari doitu zaio.
- Erakundearekiko lan-harremana moztu duen bazkideari kotizatzen jarraitzeko aukera ematen zaio.
- Etendako bazkideek urtean lehenbiziko aldiz berriz sartzeko eskatzen dutenean, alta eraginkorra izango da eskaera egin eta hurrengo hilabetearen lehen egunean. Urtean zehar berriz sartzeko eskaera bat baino gehiago egiten badute, alta eraginkorra izango da eskaera egin eta hurrengo urtearen urtarrilaren batetik aurrera.
- Kotizazio-oinarriak ezin dira aurreko urtekoak baino baxuagoak izan, eta Batzar Nagusiak adostutakoaren arabera eguneratuko dira.
- 2015etik aurrera, hileroko pentsioaren gutxieneko zenbatekoa Batzar Nagusiak adostutakoaren arabera eguneratuko da.
- Judizialki bananduta dauden ezkontideek ez dute alarguntasun-pentsiorik jasoko, egoera hori behar bezala egiaztatzen denean, eta ez dute jasoko ere edozein motako doluzko homizidio-delitua edo lesio-delitua egin izanagatik epai irmo batez kondenatuak izan direnek.

Arau-aldaketak Batzar Nagusiak onartzen dituen unean sartuko dira indarrean.

Arau-aldaketen testu osoa webgunean eta gure bulegoetan eskuragarri dago.

El pasado 26 de marzo se celebró en el Palacio Villasuso de Vitoria-Gasteiz la Asamblea General ordinaria, donde se tomaron **por mayoría absoluta** los siguientes acuerdos:

**ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

1. Aprobación de la gestión de la Junta de Gobierno, el Informe de Gestión , las Cuentas Anuales y la aplicación del resultado y de provisiones del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2013.
2. Aprobación del Plan de Gestión y presupuesto del ejercicio en curso y del porcentaje de gastos de administración del 0,36% sobre el patrimonio para el ejercicio 2014.
3. Ratificación de los nuevos representantes de la Junta de Gobierno que tomaron su posesión a lo largo del año 2013.
4. Designación como auditores de cuentas a PricewaterhouseCoopers para el ejercicio 2014.

**MODIFICACIONES REGLAMENTARIAS**

- La edad de jubilación en Elkarkidetza, 65 años, se adapta a la edad de jubilación fijada en el Sistema Público de Seguridad Social o similar.
- Se posibilita que el/la socio/a que rompe la relación laboral con la Institución pueda seguir cotizando.
- El/La socio/a en suspenso que solicita la reincorporación por primera vez en el año, su alta causará efectos el día primero del mes siguiente a su solicitud. Si hubiera más de una solicitud de reincorporación dentro del mismo año, su alta causará efectos a partir del primero de enero del año siguiente a la solicitud de reincorporación.
- La cuantía de las bases de cotización no podrán ser inferiores a las del año anterior y se actualizará según lo acordado por la Asamblea General.
- A partir del año 2015 la cifra mínima de pensión mensual se actualizará según lo acordado por la Asamblea General.
- Se excluye de la pensión de viudedad al cónyuge separado judicialmente, debidamente acreditado, y quien fuera condenado, por sentencia firme, por la comisión de un delito doloso de homicidio en cualquiera de sus formas o de lesiones.

Las modificaciones reglamentarias son eficaces desde que son aprobadas por la Asamblea General.

El texto integro de las modificaciones reglamentarias están disponibles en la Web y en nuestras oficinas.